

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza **info**

Osteguna, 2013ko martxoaren 28a. IX. urtea. 2.569. zenbakia. tolosaldea.hitza.info



Hasier De los Rios zinegotziak, Peio Doyharzabal Astelena jatetxeko sukaldariak eta Tolosaldea Tour-eko Olatz Illarregik aurkeztu zuten egitaraua. I. URKIZU

Aste Santuko oporrek karakol saltsa usaina izango dute

Tolosaldea Tour-ek antolatuta 'Karakol Saltsa' egitaraua izango da, eta Pintxo Pass txartel berria martxan jarriko dute; Lesakenea, Peru-Harri eta Arro bisitatzeko aukera izango da, Leitzan **2-3**

Pello Olano Preso politiko ohia

«Espetxean bahituak gaude, baina inola ere ez garaituak»

Hiru urte eta bi hilabete pasa ditu lizartzarrak espetxean; hilaren 12an geratu zen aske **6**



Berak eta bere familiak jasotako elkartzasuna eskertu du, Olanok. A. IMAZ

PSE-EE eta EAJri «erantzukizunez jokatzeari» eskatu die Tolosako udal gobernua

Hondakinen gaia desgaste politikorako erabiltzea leporatu diete Bilduko hautetsiek osoko bilkuran; oposizioak «informazio falta» salatu du **3**

Atez ateko sistemari buruzko bost arreta bulego zabaldu dituzte

Alegian, Anoetan, Iruran, Villabonan eta Zizurkilén daude bulegoak; Joxe Mari Luengo Zizurkilgo alkateak Tolosaldea Txukun plataforma «manipulatzeari» ari dela salatu du **4**

Nafarroako Tokiko Mapa berriak zerbitzuak «urrituko» ditu

Leitzako eta Aresoko Udalek Nafarroako beste hainbatekin batera, proiektua eta hura gauzatzeko modua salatu dute **7**

Aberri Egunera Iruñera joateko deia egin dute **7**

Oharra

Aste Santuko oporrak direla eta, TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA egunkariaren hurrengo alea datorren asteazkenean, apirilaren 3an, argitaratuko da.



Aurten ere gastronomia turismoa sustatu nahi izan dute Tolosan nahiz Tolosaldean, askotariko eskaintzekin; Hasier De los Rios, Peio Doyharzabalek eta Olatz Illarregi izan ziren agerraldian. i.u.

Oporrak karakol saltsan

Aste Santuan karakolak jateko ohiturari eutsiz, 'Karakol saltsa' egitaraua prestatu dute Tolosaldean, datozen egunotarako

Lesakenea, Peru-Harri nahiz Saralegi Arro baserriak ikusteko aukera izango da Leitizan

Itzea Urkizu Tolosa

Gastronomiak erakarriko ditu aurtengo Aste Santuko oporraldian ere, turistagehien Tolosalde-
ra eta Leitzaldera. Hari horri ti-
raz, *Karakol saltsa* izeneko egita-
raua prestatu dute Tolosa eta
Tolosalderako, eta gaurtik aurre-
ra gozatu ahal izango da jardue-
rez.

Atzo aurkeztu zuten egitas-
moa, Tolosaldea Tour-eko Olatz

Illarregik, Astelena jatetxeko Peio Doyharzabalek eta Tolosako Udaleko zinegotzi Hasier De los Riosek, eta besteak beste larun-
bat honetan Tolosan aisialdia be-
tetzeko izango diren aukerak
azaldu zituzten.

11:00etatik aurrera hasiko da *Karakol saltsa* Tolosan, azken bi urteotan ere ospatu izan duten karakol lasterketarekin, Triangu-
loan. Edonork parte hartu ahal izango du, eta sei karakolen arte-

an antolatuko dute azken finala. Horrela, bi sari banatuko dituzte. Irabazleak, Orbela tabernaren es-
kutik, Larraitzeko Txindokiko Itzala parkerako 50 euroko bi bono eskuratuko ditu; bigarren sailkatuak, berriz, Tolosa & Co merkatari elkartearen eskutik, elkarteko dendetan erabiltzeko 50 euroko txartela irabaziko du.

Karakolari protagonismorik kendu gabe, Kilometro 0 ekime-
nak eta Tolosako azokak bat egin-
go dute beste behin: karakolak dastatzeko aukera izango da, 12:00etatik aurrera, Trianguloa plazan. Astelena jatetxeko Peio Doyharzabalek 2.000 barraskilo prestatuko ditu, eta 1,5 euroren truke, bost karakoleko anoa eta sagardoa dastatu ahal izango dira; edaria Eguzkitza eta Isastegi sagardotegiek eskainiko dute.

Bide beretik, eta jakirik gozoe-
nei muzin egin gabe, *Gorrotxate-
gi, tradizio gozoa* tailerra ere mar-

txan izango da 11:00etatik 13:00era bitarte. Erreserbak Tolosaldea Tour-en egin beharko dira.

Gastronomia eskaintza Tolosa-
ko erdigunetik atera nahi izan
dute aurten, eta modu honetara,

Karakol lasterketa izango da berriz ere, larunbatean, 11:00etatik aurrera

Pintxo Pass txartela oporraldian abiaraziko dute, eta urte osoan erabili ahal izango da

karakolaren inguruko egitasmoa zabaldu dute Tolosaldeko sei jate-
txetara. 25 euroren truke, menu berezia eskainiko dute, gaurtik astelehenera bitarte, Tolosako Astelenak eta Botarrak, Berrobi-
ko Iriartek, Zizurkilgo Plaza Etxe-

berrik, Ibarrako Eluskak eta Asteasuko Patxinek.

Honakoa dastatu ahal izango da, besteak beste: eskarola entsa-
lada, mentrezka eta piper gorrie-
kin; alkatzofak, arrautza eta ur-
daiazpikoarekin; karakolak era
tradizionalean edo legatza saltsa
berdean, garaiko barazkiekin, eta
azkenik, xaxua izozki eta jogurt
naturalarekin. Gainera, menuak
ogia, ardoa, ura eta kafea ere es-
kainiko ditu.

Azkenik, haur eta gaztetzoei ere keinu egin nahi izan diete antolatzaileek, eta larunbatean ber-
tan, 17:00etatik aurrera, Magi-
klown ikuskizuna izango da Zer-
kausian.

Larunbataz harago, ordea, Tolosaldeak ere izango du zer eskai-
nia. Tolosaldea Tour-ek bisita gi-
datuak eskainiko ditu, esaterako, Tolosan barrena, eta Sukaltalka tailerlean ere ikastaroak eskaini-
ko dituzte familia osoarentzat. Honez gain, Topic zentroan haur-
rei, gaztetzoei nahiz familiei be-
girako ikastaroak eskainiko di-
tuzte Pazko astean.

Gutzien turismoa urte osoan
Lapiko handietan egindako plate-
rekin batera, eskaintza berritzaile-
a aurkeztu zuten atzo: Pintxo Pass-a. Gaurtik aurrera martxan izango da, eta urte osoan gozatu ahal izango dute, Tolosako herri-
tarrek nahiz turistek.

Tolosa Gourmet-en bitartez,



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

↓ Iragarki laburrak

LANA

Etxeko lanak. Etxeko lanetara-
ko edo haurrak zaintzeko, ema-
kume euskaldunak bere burua
eskaintzen du. Autoa badauka.
943696882/606 521992.

Gitarra jotzailea. Musika: Erro-
meria talde batek gitarra jotzai-
le bat behar du. Interesa dute-

nek, dei dezatela 658 70 11 96
telefono zenbakira.

ETXEBIZITZA

Alokairu bila. Ibarran etxea alo-
katu nahi nuke, hilean gehienez
400 euro ordainduz. Interesa-
tuek, deitu 699 8213 24 telefo-
no zenbakira.

«eragile pribatu eta publikoen elkarlanaren emaitza» dela nabarmendu dute. Horrela, Tolosaldeko sei tabernaren eskutik, etxe bakoitzeko mokadu onenez gozatzeko aukera izango da.

Eskaintzaz gozatu ahal izateko, Pintxo Pass txartela erosi behar da, euro baten truke, Tolosaldea Tour bulegoan. Behin txartela eskuratuta, Denak, Ikatza, Ilargi, Orbela, Pub 19-90 eta Triangulo tabernetako pintxo bana dastatu ahal izango da, ura, ardoa nahiz sagardoarekin batera, bi euroren truke taberna bakoitzean.

Olatz Illarregik nabarmendu duenez, «turistei begira egin

dugu, bai, baina bertakoen gozagarri ere izango da», otorduak pintxoak janez egitea sustatu nahi duen egitasmoa.

Familia osoarentzako planak

Ibarran eta Leitzan ere, hainbat eskaintza prestatu dituzte. Ibarrran, Pazko Asteari begira jarri dira, eta egunero, 17:00etatik aurrera, haur eta gaztetxoentzako ikuskizunak izango dira, kultur etxean.

Leitzan, berriz, baserriak eta hauen inguruko ohitura nahiz bizimoduak ezagutzeko aukera izango da, Lesakenea, Peru-Harri eta Saralegi Arro baserrietan, erreserbak aurrez eginda.

↓ Aste Santuko egitarauak

TOLOSA

- **Martxoaren 28tik apirilaren 1era, menu berezia.**
- 25 euroren truke, karakolekin nahiz bestelako produktuekin prestatutako menu berezia eskuragarri izango da, Tolosaldeko Astelenan, Tolosaldeko Botarrin, Berrobiko Iriarten, Zizurkilgo Plaza Etxeberrin, Ibarra Eluskan eta Asteasuko Pantxinen.
- **Martxoaren 28tik apirilaren 1era, bisita gidatuak.**
- 11:00/16:00.** Alde Zaharra.
- 12:00/17:00.** Gorrotxategi museoa.
- Erreserbak Tolosaldea Tour-en.
- **Martxoaren 30a, larunbata.**
- 11:00.** Karakol lasterketa, Triangulo plazan.
- 11:00-13:00.** Gorrotxategiren tailerra, teilak eta zigarrotxoak egiteko. Erreserbak Tolosaldea Tour-en, tour@tolosaldea.net edo 943 69 74 13n.
- 12:00.** Kilometro 0 egitasmoaren barruan, karakolak eta sagardoa izango dira, Astelena jantetxearen eta Isastegi eta Eguzkitza sagardotegien eskutik. Mokadua eta edaria 1,5 euroren truke.
- 17:00.** Magiklown ikuskizuna, Zerkasian. Magia eta pailazak.
- **Apirilaren 2tik 5era, bisita gidatuak.**
- 11:00/16:00.** Alde Zaharra.
- 17:00.** Gorrotxategi museoa. Erreserbak Tolosaldea Tour-en.
- **Apirilaren 2tik 5era.**
- 09:00-13:00.** Txotxongilo tailerra Topic zentroan, 6 urtetik aurrerako haurrentzat. 40 euro.
- **Apirilaren 3a, asteazkena.**
- 09:30-12:30.** Txotxongiloekin belaunaldien arteko harremana lantzeko tailerra, 5-7 urteko haurrentzat eta euren guraso, aiton-amonak edo zaintzaileentzat. Topic zentroan.
- **Apirilaren 6a, larunbata.**
- 11:00-15:00.** *Zuzen chef onena* Sukaltalkaren tailerra, garaiko produktuekin. Haurrek 9 euro eta helduek 39 euro. Erreserbak: info@sukaltalka.com edo 671 79 45 49.

IBARRA

- **Apirilaren 2a, asteartea.**
- 17:00.** *Etxean goxo* txotxongilo emanaldia, Rosa Maria Martinezen eskutik, kultur etxean.
- **Apirilaren 3a, asteazkena.**
- 17:00.** *Bertsolharitza* ipuin kontaketa saioa, 5 eta 11 urte bitarteko haur eta gaztetxoentzat, Ibai Esoain eta Lankuren eskutik. Kultur etxean izango da.
- **Apirilaren 4a, osteguna.**
- 17:00.** Kiki, Koko eta Moko pailazoan *Natura gara* emanaldia, kultur etxean.
- **Apirilaren 5a, ostirala.**
- 17:00.** *Antzokiko istorioak* ikuskizuna, Jakin eta Jolasen eskutik, kultur etxean.

LEITZA

- **Oporraldi osoan, Plazaola partzuego turistikoaren espartzak:**
- Saralegi Arro baserria.** Baserriaren hazten den azienda ikusi, eta taloak egiteko taileraren parte har daiteke baserri honetan. 10 euro ordaindu behar da, eta aurrez egin behar da erreserba: 610 37 85 43 edo kristina.saralegi2009@hotmail.com helbidean.
- Peru-Harri harriaren parkea.** Eskultura parkera nahiz baserri-ara bisita egin ahal izango da, eta baita herri kirolaren historia ezagutu ere, Iñaki Perurena harri-jasotzailearen baserrian. Leitzako irteeran dago, NA-1700 errepidean, Uitziko portura bidean. Erreserbak aurrez: peruharri@hotmail.com helbidean edo 659 70 10 45 zenbakian.
- Lesakenea baserria.** Oreinak nola hazten diren eta nola bizi diren ikusteko aukera eskaintzen dute, baita eurei jaten emateko ere. Honez gain, Gariarena aizkolariaren historia eta Nafarroako mendi baserrien inguruko informazioa ere eskaintzen dute. Aurrez zehaztu behar da ordua: 619 21 84 02, 606 24 96 39 edo lesakenea@hotmail.com. Webgunea: www.lesakenea.com.



Hondakinen gaia hizpide izan zen azken osoko bilkuran. I. URKIZU

Hondakinen gaia «desgaste politikorako erabiltzea» salatu du udal gobernuak

Jurreamendiko lursailetan herri baratzeak burutzeko lanak datorren ekainean hasiko dituzte

I. Urkizu Tolosa

Hondakinen kudeaketaren inguruan azken asteotan gertatutako hainbat kontu hizpide izan ziren, astearteko ohiko osoko bilkuran, Ibai Iriarte Tolosaldeko alkateak; besteak beste, «urak behar baino aldrebesago» daudela nabarmendu zuen, eta «zirko mediatiko lotsagarria» dela gaur egungoa: «Desgaste politikorako erabili duzue gaia, informazio falta eta beldurra baliatuz».

Bide honetan, Tolosaldeko hondakinen mahaia utzi berri duten EAJ eta PSE-EEko udal ordezkariak, «erantzukizuneko jokotzea» eskatu zien Ibai Iriartek: «Udal gobernuak kideak inposatzaileentzat gaituzte, baina guk ez dugu ezer inposatu nahi, egoera kudeatu nahi dugu. Hasteko, oraindik ez dugu sistemarik aukeratu Tolosaldeko hondakinak kudeatzeko, eta helburuak bakarrik finkatu ditugu. Auzia erantzukizun sozial gisa ikusten dugu, gizarte honetan eskubideak gain erantzukizunak ere baditugulako, eta kutsatzea ez delako eskubide bat».

Halaber, honakoa azpimarratu zuen: «Guk ez dugu bilketa sistemarik oraindik aukeratu, baina zuek esan duzue bosgarren edukioz ez den beste ezer ez duzuela onartuko».

Horrela, hondakinen kudeatzeko sistema aukeratzeko horre-

tan, «adituak horretarako daude» Iriarteren arabera: «Arazoa, hala ere, birziklatzen ez duen jendearekin dugu. Eskualdean, gaur egun, %34a bakarrik birziklatzen da, eta horrek esan nahi du, etxe askotan ez dela birziklatzerik egiten. Beraz, elkar gaitzezen herritarrei nola birziklatu behar duten erakusteko, eta ikertu eta gero hasiko gara mokoka hasi behar bada. Bitartean, guk ez dugu ezer ezkutatzeko».

Oposizioa informazio eske

PSE-EEko Jose Ignacio Asensiok, bere aldetik, «informazio falta» salatu zuen osoko bilkuran: «Hiru bileretan, informazioa adar batetik bakarrik joan da, eta atez ateko bilketa sistema soilik izan da hizpide».

Inaki Irazabalbeitiak, udal gobernuko kide moduan, Asensioen esanak ukatu zituen: «Nahi duzuna saldu dezakezu, baina hori gezurra da: tuper-en erabile-rra jorratu genuen bilera batean, eta inauterian harira egindako kanpainaz ere aritu izan gara. Gainera, hiru bilera soilik izan dira, eta teknikarien txostenak ere sistema bat baino gehiagoren inguruan egindakoak izan dira».

EAJko Olatz Peonek, mankomunitateak hartzen dituen erabakien berri ez dutela jeltzen nabarmendu zuen. Gainera, jantzaleek diote «erabakita» dagoela zein sistema jarri behar den Tolosaldean, eta «zirko mediatikoan guztiek» parte hartzen dutela. «Herriari galdetu behar zaio zer nahi duen: bosgarren edukioz, sistema mistoa edo atez ateko sistema».

Osoko bilkuran eztabaida area-

go zihoala ikusita, Ibai Iriartek hitza eman zien, azken aldiz, udalbatzako alderdi guztiei, eta eztabaida hori hondakinen mahaian hitz egin beharrekoa dela nabarmendu.

Herri baratzeak ekainean

Ekogune fundazioaren egitasmoa da Gipuzkoako herri baratzeak sustatzeara, eta astearteko osoko bilkuran, baratze hauen inguruko baldintzak eztabaidagai izan ziren, Tolosaldeko udaletxean.

Besteak beste, Jurreamendiko lursailetan jarriko dituzten herri baratzeen inguruko lehen ordenantza egin dute jada teknikariek, eta ingurumen batzordetik ere pasa dute agiria.

Udalbatzako kide guztiek onepena eman zieten baldintzei, eta Hasier De los Rios ingurumen zinegotziak, baratzeen obrak jada esleituta daudela argitu zuen: «Ekainerako martxan izango dira Jurreamendiko obrak».

Aipatzekoa da, guztira 81 baratze izango direla herritarren esku; haugarri bi elbarrientzako egokituak dituzte, eta beste lau baratze elkarteei begirakoak izango dira, 80 metro karratureraino. Familiak ere eskatu ahal izango dituzte baratzeak, eta kasu hauetan, 75 metro karratureraino izango dira: «Helburua langabetuei eta beste sektore batzuei lehenatsuna ematea da, eta hori batzordeetan finduko dugu».

Azkenik, osoko bilkuran, EAJko zinegotzi baten kargu hartzea ere izan zen. Horrela, Joxelu Anduezen ordez, Miren Ezkiaga ariko da aurrerantzean, zinegotzi lanetan.

Irudia > Amasa-Villabona



EZIN TXAPELA IRABAZI

Gipuzkoako Joko Garbiko ezker paretako finalak jokatu ziren asteburuan Villabonako Bearzana pilotalekuan. Behar Zana pilota elkarteko Alejo eta Sanchezek osatutako bikoteak hartu zuen parte senior mailan, baina Zubietako bikotearen aurka 33-40 galdu zuten. Oñatin, berri, Gipuzkoako Eskolarteko eskuz binakako finalak jokatu ziren, eta Behar Zanako infantil mailako bikoteak (Juan Jose Etxeberría eta Ioritz Etxeberría) 16-5 irabazi zuten. HITZA

→ Laburrak

Aberri Eguna dela eta, meza egingo dute

BIDEGOIAN > Aberri Eguna dela eta meza egingo da, igandean, Bidegoiango elizan, 12:00etan. Mezaren ondoren, herriko dantzariak izango dira plazan. Horrez gain, Espainiako bandera ezartzearen aurka, balkoietan ikurrinak zintzilikatzeko deia egiten die herritarrei udalak.

Jokin Alkizalet, Urrezko Aizkolariak txapelketan

ASTEASU > Urrezko Aizkolariak txapelketaren banakako lehiari hasiera emango diote larunbatean, hilak 30. Lehenengo saioan Jokin Alkizalete asteasuarrek parte hartuko du, urrezko mailan. Bilboko Areatzan jokatuko da neurketa, 12:00etan hasiko den lehiari. Alkizalete II.ak beste bederatzia aurkari izango ditu, eta lehenengo biek lortuko dute hurrengo faserako txartela.

Atez atekoari buruzko arreta bulegoak zabaltzen dituzte

Hondakinen bilketa sistema berria ezarriko duten bost udalek bulegoak ireki dituzte herritarrei informatzeko

Mikel Iraola

Atez ateko bilketa eredua ezarriko duten Tolosaldeko bost herrietan informazio bulegoak ireki dituzte, herritarrei sistema berriari buruzko kezak argitzeko.

Azken hilabeteetan, gizarteratze prozesuetan murgilduta izan dira Amasa-Villabona, Alegia, Irura, Anoeta eta Zizurkil, baina prozesu horretan argitu gabe geratu diren kezak azaltzeko, edota bertara gerturatu ezin izan dutenentzat pentsatuta, informazio gehigarria emango duten arreta puntuak zabaltzen dituzte.

Bertan, kuboak kalera ateratzean, non eta nola kokatu erakutsiko dute. Kokalekuari dagokionez edonork proposamen berriren bat egin nahiko balu, edota edukiontzi komunitarioak eskatu nahiko balitu, apirilaren 12ra bitarte izango du horiek aurkezteko denbora.

Bilketaren egutegiak ere banatuko dituzte. Modu horretan, astelehen, ostegun eta larunbatean organikoak jasoko da. Astearte eta ostiralean, ontzi arinak. Asortatzeketan, berri, papera eta



Pasa den ostiralean inauguratu zuten Villabonako bulegoa. HITZA

↓ Tolosaldeko bulegoak

- **Alegia.** Udaletxeko bigarren solairuan izango da, asteartetik ostegunera (12:00-14:00). Kontakturako: 661559757 telefono zenbakia eta alegia@tolosaldea.org.
- **Anoeta.** Astelehenetik asteazkenera, bake epaitegiko gelan, 09:00etatik 13:00etara. Kontaktua: anoeta@tolosaldea.org eta 661559757 zenbakia.
- **Zizurkil.** Asteartetik ostiralera Atxulondo kultur etxean, 15:00etatik 19:00etara. Kontak-

kartoa jasoko da. Eta errefusa igandean bilduko dute.

Mankomunitatetik eta udaletatik herritar guztiei dei egiten

- turako 661559736 eta zizurkil@tolosaldea.org.
- **Villabona.** Kale Nagusiko 29. zenbakian, astelehenetik ostiralera. Orduetgia: 11:00 - 13:00 eta 18:00 - 20:00. Kontakturako: villabona@tolosaldea.org eta 672655455 zenbakia.
- **Irura.** Astearte eta ostegunak, 09:30etik 13:30era. Asteazkenean, 17:00etatik 19:30era. Udaletxean. Kontaktua: 672654506 telefono zenbakia eta irura@tolosaldea.org helbidean.

diere bertara joan, eta behar duten informazio guztia eskuratu eta sistema berria gertuagotik ezagutzeko.

Mauka berria

Izena eman orain Maukan, eta irabazi bi pertsonarentzako egonaldia Urdaibai Biosfera Erreserbatuan, Aristieta baserrian!

www.mauka.eu

ARISTIEA BASERRIA

Eman izena apirilaren 7a baino lehen

Tolosaldea Txukun «manipulatzen» ari dela salatzen du Zizurkilgo alkateak

«Gezurretan ibili izana» leporatu dio Joxe Mari Luengok, eta udalak «beti gardentasuna erabili» duela esan du

M. Iraola Zizurkil

Joxe Mari Luengo Zizurkilgo alkateak Tolosaldea Txukunek egindako adierazpenei erantzunez, «manipulazio hutsa» erabilteaz leporatu die. «Okerra» den informazioa zuzendu nahi izan du Luengok. Bere esanetan, Spora enpresak egindako txostena «egokia da, eta kritikatu dute eurek nahi dutena esaten ez duelako soilik».

Luengo minduta azaldu da eta Tolosaldea Txukun-i «gezurretan ari izana» leporatu dio. Bosgarren edukiontzia alderatu platafor-

mak, Zizurkilgo alkateak sinadurak erakutsi ez izanagatik, txosten teknikoak ez ematea salatzen zuen. Luengok, gauzak beste modu batean izan zirela dio: «Adierazpen horien jatorrian, Zizurkilgo EAJko bi zinegotzietan zandako eztabaida dago. Guk esan genien ez genuela ezer ezkuzatzeko. Baina guk salatzen sinaduren berri prentsatik jaso genuela». Dena den, Luengok onartu du agian ez dutela dena ongi egin, baina ez dutela inoiz gezurrik esan: «Gardentasuna eta herritarrei gauzak argi esatea hasieratik egin dugun zerbait da. Urtebete baino gehiago da atez atekoa jarriko genuela esan genuela, ez dugu ezkutuan eman. Triste da inoiz nirekin hitz egin ez duen pertsona bat nik gezurra esan dudala entzun beharra».

Inbertsioen auzia, berri, «asmakuntza» dela dio, eta 50.000 eu-

roko partidarekin «beharrezkoak diren azpiegiturak» egingo direla. «EAJ ez da inor Zizurkil lezio ekonomikoak emateko. Has daitezela azaltzen pilotua daukagun zorraren zergatia. Gu buelta ematen ari gara horri». Aurrekontuak «edonork» ikus ditzakeela dio.

Herritarrei mezua

Gertatutakoaren harira, Luengok lasaitasun mezua bidali nahi izan die herritarrei: «Askok benetako kezka dute, aldekata batek dakarren kezka. Nik esango nieke zalantza guztiak argitzeko zerbait hori dutela eta arazoek badutela irtenbidea». Atez atekoaren sistema, «ohitura aldekata» bat besterik ez dela dio. Oposizio kideei ere eskua luzatu die, etorkizuneko proposamenak «ongi etorriak» izango direla adieraziz.

Asier Imaz Lizartza

Hiru urte eta bi hilabete pasa ditu Pello Olano lizartzarrak espetxean; «bahituak, baina inola ere ez garaituak», zehazten du. Une latzak bizi izan ditu barruan: amaren heriotza, inkomunikazioa, dispertsioaren ondorioak... baina patuaren beste alde ere ezagutu du, Jose Mari Sagardui *Gatza*-rekin gertatu zitzaiona, horren adibide.

Pello Olano martxoaren 12an gelditu zen aske, fidantzapean. Lizartzara iritsi orduko, berak eta bere familiak jasotako elkartasuna eskertu zuen. Bi aste pasa diren honetan, oraindik gauza bera eskertzen jarraitzen du, elkartasun horren esanahiaren adierazle.

Zure kasuan, atea bota edo tinbrea jo zuten atxilotoketa uanean?

Tinbrea jo zuten, gauerdian. Bi koteak ireki zuen atea, eta ea Pedro Mari Olano bertan bizi zen galdetu zioten. Hori entzutean, baietz esan nien. Orduan, guardia zibilak zirela eta ni atxilotzera zetozela esan zidaten.

Miaketek zenbat denbora iraun zuten?

Lehenik gure etxea miatu zuten, goitik behera, eta ondoren, 02:00ak aldera, amonaren etxera eraman ninduten, eta hura ere miatu zuten. Zorionez, amona ez zegoen bertan, klinikan baitzen. Ordurako, prentsa bertan zegoen.

Ondoren, Madrilerako bidai.

Lehendabizi Donostiara eraman ninduten, mediku frogen protokoloa egitera. Ondoren hasi zen Madrilerako bidai. Bide guztia biderketak egiten joan nintzen, eta nahastu edo gelditzen banintzen, kolpeka hasten zitzaizkidan.

Noiz jakin zenuen zure aurka zer zuten?

Hasieran Batasunaren edo ezker abertzalearen aurkako operazioa zela pentsatu nuen. Galdekete-tan, ordea, erakundekoa nintzela eta bazekitela non ibili nintzen esaten zuten. Izugarritzko muntaia osatuta zuten; Aznarren aurkako misilen kontua, adibidez, hori esan zidaten.

Inkomunikazio garaiko bost egune-tan tortura salatu zenuen.

Gogorra izan zen, bai fisikoki eta baita psikologikoki ere. Paula bikotekidearen inguruko galdeketa... gero, poltsa hamabi edo hamalau aldiz jarri zidaten bi edo hiru egunetan. Eskuak atzean lotu, eta manta batean bilduta lurrrera botatzen ninduten. Bost edo sei nire gainean jarri eta poltsa jartzen zidaten. Pare bat aldiz mareatu nintzela uste dut, baina puntu horretara iristen ari nintzela ikusten zutenean, poltsa kendu eta kantatzeko eta kantatzeko esaten zidaten.

Inkomunikazio garaian ez jatea erabaki zenuen, ezta?

Lehen ere inkomunikazioa birritan ezagutu nuen, eta oraingoan,



A. IMAZ

Pello Olano • Preso politiko ohia

ETA erakundearekin lotura zuelakoan atxilotu zuten Pello Olano lizartzarra duela hiru urte. Denbora honetan bizitako une gogor eta ez hain gogorak kontatu dizkio **TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA**-ri.

«Mila erataria saiatzen dira gu izorratzen, baina barruan kolektiboa indartsu dago»

torturatua izango nintzela pentsatuz, ez jatea erabaki nuen. Horrela, indar gutxiago edukiko nuen torturak jasateko, eta errazago eroriko nintzela pentsatzen nuen, torturak ere gutxiago izango zirelakoan. Baina asko ikasi dutela konturatu naiz.

Zein zentzutan?

Lehen hamar egunetan egiten zutena orain bostetan egiten dute; hobeto eta markarik utzi gabe gainera. Prestatuago daude. Hala eta guztiz ere, nire kasuan, urte t'ardi egon naiz besoko minarekin. Poltsa jartzen zidaten bitartean, nire gainean jartzen ziren, eta besoa gaizki utzi zidaten.

Medikuarengana eraman al zintuzten?

Forentsea edo egoten zen, baina zerbait esanez gero, gezurretan ari zirela esaten zizun.

Sona handia izan zuen misilen kontua aipatu duzu lehen.

Beraiek esaten dute dena, baita zer sinatu behar duzun ere. Poliziaren aurreko aitorpena sinatze-ra, gora joan behar duzula esaten dizute, eta ez baduzu sinatzen, oraindik bi egun gelditzen zaizkizula gogoratzen dizute, eta behar badakizula zer dagoen.

Nola gogoratzen duzu bost egun haien amaiera?

Beti esaten dena, eta errealitatea dena: inkomunikaziotik espetxera pasatzea, zerura joatea da. Hi-

labete t'ardi egon nintzen Soton bi kiderekin, eta zerua zen.

Ondoren, Jaenera eraman zintuzten. Bi urte pasa nituen bertan, lehen urte t'erdia isolamenduan. Hamar kide geunden Jaenen. Goizean bost ateratzen ginen, eta arratsaldean besteak; elkarikustenez ginela. Jaenera joatean izugarritzko ezustekoa hartu nuen, espetxean denbora gehien igaro duen *Gatza* han baitzegoen.

Lehendik ezagutzen al zenuen?

80. hamarkadan elkarrekin egon ginen Carabanchelen, eta 30 urte beranduago, berriro elkartu ginen. Kasualitate handia eta poz handia izan zen. 30 urte eta bederatziti hilabete espetxean pasa ondoren, aske gelditu zen *Gatza*, hain justu, semeak urteak egiten

zituena egun berean, apirilaren 13an.

Txanponaren beste alde, amaren heriotzarekin ezagutu zenuen Jaenen.

Bi urte egingo ditu maiatzaren 17an. Asteazken batean esan zidaten, txapeoa egiten ari baiki-n. Moduluan, Josu Ziganda eta biok ginen, eta bera instantziak sartze-ra joan zen; ni, berriz, biontzat gosaria hartze-ra. Itzuleran, ama gaixo al nuen galdetu zidan, eta segidan, hil egin al zen galdetu nion. Erabat galduta gelditu nintzen.

Lizartzara orduan ekarri zintuzten.

Bai, horrela da. Bazkari garaian deitu nuen etxera, eta baietz, bezperan hil zela esan zidaten. Pape-rak egin eta furgoneta batean he-

rrira abiatu ginen; bidean zortzi edo hamar aldiz mareatu nintzela gogoratzen dut. Arratsaldean iritsi ginen Logroñoko espetxera, eta 20:30ak arte bertan eduki ninduten denbora egiten. Hileta 19:00etan zen. Bidean galduta eta abar ibili ondoren, Lizartzara 22:00etan eraman ninduten. Etxean 30 minutu egon eta buelta. Oso gogorra izan zen amarena.

Askatu eta herrira iritsi zintenean, hitza bete zenuen.

Askatzen nindutenean, lehendabizi hilerria joango nintzela esan nuen, eta horrela egin nuen. Lore batzuk utzi, negar egin, eta herrira.

Jaendik Murtziara eraman zintuzten, eta hortik kalera. Espero al zenuen?

Ez nik eta ezta abokatuak ere; izugarritzko ezustekoa izan zen. Paulak deitu zidan telefonoz, eta aske gelditzen nintzela esan zidan. Ez nion sinetsi fidantzarena aipatu zidan arte.

Soto, Jaen eta Murtzia. Barrutik nola bizitzen da dispertsioa?

Bai onena, eta baita txarra ere, asteburua izaten da, nire uestez, kide guztiontzat. Alde batetik, senideekin eta lagunekin egoten zara, eta izugarritzko poza da hori, baina bestetik, bidaiak daude; milaka kilometroko joan-etorriak. Bisita amaitu eta ziegara itzultzean, burua jaten egoten zara, itzulerara nola joan ote den galdezka. Hurrengo egunean egiten den lehendabizikoa telefonoz deitzea da, dena nola joan den jakiteko.

Zer da zuretzat Euskal Preso Politikoen Kolektiboko kide izatea?

Dena. Hasiera-hasieratik laguntza osoa eta indarra ematen dizute. Edozer gauza dagoela ere, kolektibo baten kide zara, ez duzu norbanako moduan jokatzeko. Mila erara saiatzen dira gu izorratzen, baina kolektibo indartsu bat dagoenez, militante izaten jarraitzen duzu barruan, borrokan segitzen duzu. Han bahituak gaude, baina inola ere ez garaituak.

Judizialki, zein da une honetan zure egoera?

Egunero joan behar dut sinatze-ra: astelehene-tik ostiralera Lizartzara, eta larunbatean eta igandean Tolosako epaitegira. Orain, epaiketaren zain nago, eta hori ez dakit noiz izango den. Hilabete batzuetara izan daiteke, edo ez dakit zenbat urtera.

✉ **Gutuna**

Agur Iñaki

Zaila da norbaitek hainbeste bertute izatea eta bere sentimendua elkarbanatzea, erabat, Iñaki ezagutzeko zortea izan dugun guztiok. Adostasunaren bila aritzen zen gizona, zintzoa, pertsona handia eta artista handia, bi ezaugarri horiek banaezinak izanik. Konpromiso handia zuena bere garaiarekin, bere herriarekin, bere kultura eta gizartearekin, biziki eskuzabala, trukean ezer eskatu gabe, umila, errotutako sentimenduekin, oso tolosarra, euskalduna eta baita unibertsala ere. Iñaki pertsona oso ikasia izan da, jakintsua eta prosa zaindukua, beti zuhurtasun handiz jokatu duena eta protagonismotik urrun.

Tarteka tokatzen zaigu kasta bereziko jendea ezagutzea, nola jakin ez baina berehala ezinbestekoak egiten zaizkigunak. Horietakoa zen Iñaki. Bere apaltasunean, handia. Bere lan ixilean, gauza ederrenen egilea. Inondik inora eskertzarik espero ez zuen jarrerara hortan, ezagutu genion guztion aldetik mirespena eta maitasuna bereganatu zuena. Herrigintzan, kulturgintzan eta gizatasunean dena eman zuen Iñakik eta asko ematen dutenek hutsune handia uzten dute albotik joaten zaizkigunean. Iñakik umezurtz utzi gaitu orain. Bere ondare ikaragarria hor izango dugu, baina min ematen digu horrelako injustizia batek bere ahotsa, jakinduria, idealismoa eta konpromisoa lapurtu izana.

Artearen gaineko jakintza za-

bala zuen margolari garaikidea zen Iñaki. Formatu eta diziplina artistiko anitzeko lanak egin zituen. Lankide gisa urte asko eman genituen ondoan, kulturari buruz genituen kezak eta konponbide zaileko egoerak elkarbanatuz. Iñakiren ondoan bizitako esperientzia hauek guztiak, positiboak izan dira guztiontzat. Sekulako emozioa eragin zigun, Tolosari prestigioa ematen dion Herriarentzako Eskulturak proiektua garatzen ari zinela, Nestor Basterretxeak «erakusketa bateratu bat egin nahiko nuke zurekin» esan zizunean. Aranburu Jaurregian egin zen 2007ko maiatzean.

Mundu abstraktuak, garaikideak, figuratiboak, espazioak, kromatikak, ehunak, pintzelek... Guztiak osatzen zuen bere mundu artistikoa. Azken aldian, arte iragankorra eztabaidatu izan ohi da, baina suntsikorra ez dena zure ontasuna eta zure obra izango dira.

Cristina, Iñigo, Garazi, Simon, harro egon behar duzue.

Iñaki, bizitza iragankorra da eta kearen moduan dabil; udaberria bezain artista gaztea, adiskideetan parekorik gabea

Agur eta ohore Iñaki adiskide. Zauden tokian zaudela, Iñaki, osasuna eta pakea.

■ **Juan Garmendia Larrañaga, Nisa Goiburua, Mixel Perales, Lukas Mendikute, Iñaki Etxeberria eta Antxon Eloseg.**



Iñaki Epelde, Eskulturasteako epaimahaiko bere kideekin. HITZA



Oria ibaian egingo dira flora espezie inbaditzaileak erradikatzeko proiektua. M. IRAOLA

Eskualdeko ibaietako flora espezie inbaditzaileak erradikatzeko proiektua martxan jarriko dute apirillean. Horrekin batera, ibar-basoen egoera hobetzeko helburuarekin, habitat naturala errestauratzeari ekingo diote.

Oria eta Araxes ibaien itxuraldaketa

Mikel Iraola

Oria eta Araxes ibaiak beste itxura bat hartzen hasiko dira hemendik aurrera. Izan ere, Uraren Nazioarteko Eguna ospakizunetan murgilduta, bi ibai hauetako flora inbaditzailea erradikatzeko lanak martxan jarriko dituztela adierazi dute eskualdeko udalek.

Garbiñe Mendizabal, Tolosaldea Garatzen agentziako udal sailleko arduradunak esan duen moduan, Goierrin hasi zituzten lanei eskualde moduan erantzun nahi izan diete arazo honen aurrean: «Herri batek bere lana egiten ez badu, gainontzekoen lanak ez du ezertarako balio». Modu horretan eskualdeko ibar-basoa egoera onean mantentzeko konpromisoa sendotu nahi dute.

Lanak apirilaren erdialdean hasiko dira. Lehenagotik, espezie inbaditzaile horien eragina eza-gutzeko lanetan ibili dira, eta hauek hartzen dituzten eremu-ekin kartografia bat burutu dute. Identifikatu dituzten espezieak lau dira: *Fallopia japonica*, *Buddleja Davidii*, *Cortaderia Selloana* eta *Helianthus Thuberous*.

Ezer egin ezean, espezie hauek izan dezaketelako indarrak ohar-tarazi du Mendizabalek: «Oso azkar barreiatzen dira, eta bertako landareei ez diete hazten uzten. On-

dorior, espezie autoktonoak hil egiten dira». Ibar-baso horiek urarentzat ere kaltegarriak izan daitezkeela gaineratu du, landare autoktonorik ezean, uholdeak erraztasun gehiagoz eragiten baititu.

Bigarren helburu bat ere izango du proiektu honek. Izan ere, landare hauen erauzketa lanetan identifikatu ditzaketelako beste espezie batzuekin beste kartografia bat egingo dutela jakinarazi du Tolosaldea Garatzeneko teknikariak: «Badaude inbaditzailetzat jotzen ez diren landareak, eta horiek ez zaintzeagatik, eta utzikeriagatik, asko hazi eta inbaditzaile izaten amaitzen dutenak. Horregatik, horiek zaindu eta kontrolatuko dituzte».

Gainera, landare inbaditzaileak kentzea bezain garrantzitsua izaten da errestaurazio lana, bereziki ibai ertzeko habitat naturala; beraz, Tolosaldeko habitat naturalaren errestaurazio ekologikoa eta erregenerazioa aurrera eramango dute espezie berriak landatuz.

Proiektuarekin apirilaren erdialdean hasiko badira ere, «epe luzeko lana» izango dela adierazi du Mendizabalek: «Luzarorako lana da. Emaitzak beranduago ikusiko dira, espezie berriak ez baitira egun batetik bestera hazten. Gainera, ondoren, egindako lanak jarraipenik ez badu, ez du

balio, beraz, aurrerantzean ere lanean jarraitu beharko dugu».

Proiektu honetan eskualdeko 28 udalerriek parte hartuko dute, baina urte honetako lanak Ikaztegieta, Baliarrain, Altzo, Alegia, Leaburu, Lizartza, Orendain eta Tolosako lur eremuetan burutuko dira, Oria eta Araxes ibaietako uretan.

Tolosa Garatzenek koordinatuko ditu lan guztiak, eta Aranzadi elkartearen laguntzaz burutuko dituzte garbiketako lanak. Proiektua aurrera eramanez ahal izateko, Eusko Jaurlaritzak diru laguntzak emango ditu, eta URA Uraren Euskal Agentzia eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren babesak jasoko du.

Sentsibilizatu beharra

Garbiketez gain, oraindik zehaztu ez diren beste hainbat ekintza antolatu nahi ditu Tolosaldea Garatzenek, herritarrek sentsibilizatzeko aldera. «Ez dago informazio asko horrelako arazoan inguruan eta beharra dago. Gainera, espezie inbaditzaile asko jabeago pribatuak eremutan sortzen dira, eta horien jabeak ohartaraztea beharrezkoa iruditzen zaigu» azaldu du Mendizabalek.

Horretarako, hitzaldiak, garbiketako kanpainak eta eskoletan tailerrak egitea aurreikusitako dute. Gainera, ondoren, egindako lanak jarraipenik ez badu, ez du

Jarraitu albisteak
Twitter bidez
@hitzatosaldea

hitza info

Sartu gure webgunean
tolosaldea.hitza.info

Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza
orrialdeari eman "atsegin dut"



Leitzakoaz gain, beste 90 udaletako eta 52 kontzejutako alkate eta zinegotzik salatu dute egoera. HITZA

Nafarroako Tokiko Maparen proiektuak «zerbitzuen urritasuna» dakarrela diote

Leitzako eta Aresoko Udala beste hainbat udalekin elkartu dira, proiektua eta hura egiteko modua salatzen

Iñigo Terradillos Leitza

Nafarroako Gobernuak lurralde-rako egin asmo duen berrantolaketa eztabaidagai da beste behin. Nafarroako Udalerrien eta Kontzejuen Federazioak onespina eman ostean, apirilaren erdialde-za eztabaidatuko dute parlamentuan Tokiko Mapa berria. Bada, 91 udaletxetako —tartean Leitzakoa eta Aresokoa— eta 52 kontzejutako alkateak eta zinegotziak egitura horren aurka azaldu dira, «zerbitzuen kalitatea gutxitzea eta kasu batzuetan kontzejuen desagerpena» ekarriko lukeela koto.

Juan Mari Barriola Leitzako Udaleko zinegotziak adierazi duenez, «krisi ekonomikoaren aitzakian, eraginkortasuna bilatu eta zerbitzuak merkeagoak izatea nahi dutela esan dute». Bere us-

tez, baina, «herriak gehiago kontrolatu nahi dituzte, bai ekonomiko bai eta zerbitzuen aldetik».

Nafarroako Gobernuak onartu asmo duen berrantolaketaekin, «herriek eta kontzejuek, orduan eta txikiagoak orduan eta autonomia txikiagoa izango dute, eta hainbat kontzejuren desagerpena ere ekar lezake». Halaber, erakundeak herritarrengandik «urrunduko» dituztela uste du Leitzako zinegotziak, eta «Nafarroako Gobernuaren kontrola handitu».

60tik 6 mankomunitatera

Bestalde, Nafarroan 60 mankomunitate inguru daude egun, eta proiektu berriarekin 6ra murriztuko lirateke. Horrek «zerbitzuen urritasuna» ekarriko lukeela dio Barriolak. «Nafarroak dituen ezaugarriengatik oso zaila da zerbitzuak maila berean ematea leku guztietan, horregatik, mankomunitate bakoitzak bere inguruna egokituriko zerbitzua ematen du, baina, makromankomunitateetan elkartuko balira, hori galdu egingo litzateke; aurrekontua murriztuko litzateke, eta

baita langile kopurua ere, eta ondorioz, baita zerbitzuen kalitatea ere».

Proiektuarekin ados ez egoteaz gain, Nafarroako 143 udaletxe eta kontzejutako alkate eta zinegotziak «hura garatzeko erabilitako modua» kritikatu dute, «ez baitute herriekin eta kontzejuekin kontatu, ez gobernua ez eta Nafarroako Udalerrien eta Kontzejuen Federazioak ere». Hori dela eta, ezohiko batzarra egitea exijitu diote federazioari, bertan gaia eztabaidatua izan dadin. «Gero Nafarroako Gobernuak ez badio kasurik egiten federazioan hitz egiten dugunari, agerian geratuko da beste behin eskuinaren inposizio jarrera», dio Barriolak.

Bide «beretik» joango litzateke Madrilén prestatzen ari diren aurreproiektua. «Are larriagoa eta beldurgarriagoa da, horren araber herri asko desagertu egingo bailirateke, eta autonomia bera ere zalantzan jarriko bailitzateke». Barriolaren ustez, «Nafarroako Gobernu ez da autonomiaren beharrezko defentsa egiten ari» Madrilén mugimenduen aurrean.

Azken ostiralero elkarretaratzeak egingo dituzte bihar

Jai eguna izaki, hainbat herritan pasa den ostiralean egin zituzten; herritarrek deitu dituzte parte hartzera

I. Terradillos

Herrira mugimenduak deituta, hileroko azken ostiralean egin moduan, Tolosaldeko eta Leitzaldeko herri askotan elkarretaratzeak egingo dituzte bihar. Euskal presoan aldeko elkarretaratzeetan presoak Euskal Herriratzea eskatzeaz gain, kasu honetan, presoek ezarritako salbuespenezko neurrien aurka egingo dute.

Bada, hilabete honetako azken

ostirala jai eguna egokitu denez, hainbat herritan aldatu egin dute elkarretaratzeetarako eguna. Hala, Amezketan, Berrobin, Bidegoianen eta Villabonan pasa den ostiralean egin zituzten elkarretaratzeak. Anoetan, berriz, atzo egin zuten.

Gainerako herrietan bihar egingo dute ohiko ordu eta lekuetan: Adunan, 20:30ean; Alegian, 19:30ean; Altzon, 20:00etan; Asteasun, 19:00etan; Berastegin, 19:30ean; Ibarra, 19:30ean; Iru-ruan, 19:30ean; Gaztelun, 19:30ean; Ikaztegietan, 20:30ean; Leitza, 20:00etan; Leaburun, 20:15ean; Lizartzan, 20:00etan; Tolosan, 19:30ean; eta Zizurkilen, 20:00etan. Herritar oro gonbidatu dute elkarretaratzeetan parte hartzera.

Aberri Egunera Iruñera joateko deia egin du Bai Euskal Herriari-k

Bidegoiango eta Tolosako Udalak ikurrinak jartzeko deia egin dute; dantzarien saioa izango da Bidanian

I. Terradillos

Tolosaldeko Bai Euskal Herriari, igandeko Aberri Egunaren harira Independentistak sareak Iruñean ospatuko duen egunera joateko deia egin du. Halaber, Tolosan antolatutako autobusean joateko aukera azaldu du. Autobusa, igandean, 10:30ean irtengo da, Tolosako Santa Klaratik, eta bertan joateko aurrez eman beharko da izena, ohiko lekuetan.

Bai Euskal Herriari-k adierazi

duenez, «Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Behe Nafarroa, Nafarroa Garaia, Lapurdi eta Zuberoako herritar guztientzat, bai eta munduan barna bizi diren euskaldunentzat, ospakizun eta aldarrikapen egun handia da Aberri Egunena». Hala, «euskal herritarrok gure herriaren jabe izan eta gure etorkizuna erabakitzeko dugun eskubidea» izango dela aldarrikapen «izar» Aberri Egunean gehitu dute.

Bestalde, Aberri Egunaren harira, igandean, Bidanian, 12:00etako mezaren ostean, herriko dantzarien saioa izango da. Era berean, Bidegoiango Udalak eta Tolosako Udalak «Espainiako bandera jartzeko inposaketan aurrean», ikurrina jartzeko deia egin diete herritarrei.

Hilberriak eta urteurrenak

ESKELAK

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info



**JACINTO
IRAZU
ATXAGA**

2007ko martxoaren 31n
hil zen, 92 urterekin

Oroimenez, semeak eta ahaide guztiak



**IZASKUN
GARMENDIA
DORRONSORO**

2011ko abenduaren 12an
hil zen, 94 urterekin

ASTEASUN, 2013ko martxoaren 28a



17°
13°

GOIZA	LAINOTUA
ARRATSALDEA	LAINOTUA
BEROENA	18°
HOTZENA	12°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak SM
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Eneritz Maiz
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1.687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aitzondo@hitza.info
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leitzalde: 687 410 118. leitzalde@hitza.info

Tolosa Herria
Hedabideak
SM-ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



Galtzaundi
euskara
taldea



eta Tolosaldeko
eta Leitzaldeko
beste 77 eragile

Hitza-k
Bai
Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduña, Albiztur, Alegia, Alizo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Farmaziak

GAUR

■ **Tolosa.** Egunkoia eta gauekoa: Bengoetxea, E. Kale Nagusia, 7. Telefonoa: 943 67 06 48.
■ **Leitza.** Campos M.Z. Elbarrren, 52. Telefonoa: 112.

BIHAR

■ **Tolosa.** Egunkoia eta gauekoa: Azpiroz, L. Amaratz auzoa, 9. Telefonoa: 943 67 5118.
■ **Leitza.** Campos M.Z. Elbarrren, 52. Telefonoa: 112.

LARUNBATA

■ **Tolosa.** Egunkoia eta gauekoa: Olarreaga, M. Martin J. Iraola etorbidea, 10. Telf: 943 67 24 38.
■ **Leitza.** Campos M.Z. Elbarrren, 52. Telefonoa: 112.

IGANDEA

■ **Tolosa.** Egunkoia eta gauekoa: Bronte, C. Korreo kalea, 20. Telefonoa: 943 67 60 13.
■ **Leitza.** Campos M.Z. Elbarrren, 52. Telefonoa: 112.

ASTELEHENA

■ **Tolosa.** Egunkoia eta gauekoa: Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. Telf: 943 65 46 10.
■ **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarrren, 95. Telefonoa: 112.

ASTEARTEA

■ **Tolosa.** Egunkoia eta gauekoa: Morant, R. Zabalarreta lorategiak, 1. Telefonoa: 943 673849
■ **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarrren, 95. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

Agurrak



Urte askoan!

Maddi Iturriz Alkorta (Txarama).
Gaur 10 urte! Muxu asko familiaren partetik, ondo pasa!

Agenda

GAUR, HILAK 28

DEIALDIAK

■ **Tolosa.** Tolosako Foro Errepublikarrak herri bazkaria antolatatu du apirilaren 14rako. Bazkaria 14:15ean Zerkausian izango da. Interesatuek izena eman dezaketete 22 euro Kutxako 2095 5081 93 1074768150 kontu korronte zenbakian sartuta. Izena eta abizena zehaztu beharko dira. Entsalada erusiarra, krabarroka-budina, txekor masailak saltsan eta arrautzesnea izango da. Ogia, edatekoa, kafea eta kopa barne.

■ **Tolosa.** Tolosako Udalak, sanjoan iragarriko dituen kartela egiteko lehiaketa antolatatu du. Maiatzaren 17a da lanak aurkezteko azken eguna. Kartelean, *Sanjoanak 2013/Tolosa, ekainak 21-25* agertu beharko da.
■ **Tolosa.** Kilometroak 2013ko ikasle Batzordeak Ahorra! bideo lehiaketa antolatatu du. Gehieneko bost minutuko edozein bideo egin daiteke. Lanak aurkezteko azken eguna maiatzaren 10a da.

■ **Gaurtik apirilaren 1era, menu berezia.**
25 euroren truke, karakolekin nahiz bestelako produktuekin prestatutako menu berezia eskuragarri izango da, Tolosako Astelenan, Tolosako Botarrin, Berrobiko Iriarten, Zizurkilgo Plaza Etxeberrin, Ibarako Eluskan eta Asteasuko Pantxinen.
■ **Gaurtik apirilaren 1era, bisita gidatuak.**

11:00/16:00. Alde Zaharra.
12:00/17:00. Gorrotxategi museoa. Erreserbak Tolosaldea Tour-en egin behar dira.

ZINEMA

■ **Tolosa.** Leidor zineman, gaur, 17:00etan, *Rio* haur zinea euskaraz izango da. 19:30ean, be-



erri, *Las flores de la guerra* eta 22:30ean, *Siete psicopatas* filmak izango dira.

ERAKUSKETAK

■ **Tolosa.** Topic Zentroan Txoxongillo taldearen erakusketak dago ikusgai. Enkarni Genua eta Manolo Gomezen erakusketak da, eta 80 txoxongilok osatzen dute.

■ **Tolosa.** Lanbroa tabernan, Xegunda Iztuetaren buztinezko arte lanak daude.
■ **Alegia.** Erretirodunen tabernan, Jaoni Alkortaen margolanak daude.

BIHAR, HILAK 29

ZINEMA

■ **Tolosa.** Leidor zineman, 17:00etan, *Los Croods* filma izango da, eta 19:30ean, *Ikusi arte* filma eskainiko dute.

MARTXOAK 30, LARUNBATA

DEIALDIAK

■ **Tolosa.**
11:00. Karakol lasterketa, Trianguloa plazan.
11:00-13:00. Gorrotxategiren tailerra, teilak eta zigarrotxoak

egiteko. Erreserbak Tolosaldea Tour-en, *tour@tolosaldea.net*-en edo 943 69 74 13n.

12:00. Kilometro 0 egitasmoaren barruan, karakolak eta sagardoa izango dira, Astelena jatearean eta Isastegi eta Eguzkitza sagardotegien eskutik. Moka dua eta edaria 1'5 euroren truke.

12:00. Tolosa Kantarikoak Tontokaletik abiatuko dira, kaleak kantuan zeharkatzeko.

17:00. Magiklow'n ikuskizuna, Zerkausian. Magia eta pailazoak.

ZINEMA

■ **Amasa-Villabona.** *Un plan perfecto* filma ikusteko aukera izango da, 22:00etan, Gurea Zinemaren.

■ **Tolosa.** Leidor zineman, 19:30ean, *Hasta la vista* filma eskainiko dute, eta 22:30ean, *Ikusi arte* izango da.

MARTXOAK 31, IGANDEA

DEIALDIAK

■ **Tolosa.** Iruñean egingo den Aberri Egunerako joateko autobusa 10:30ean abiatuko da Santa Klaratik.

ZINEMA

■ **Tolosa.** 17:00etan, *Los Croods* filmak izango dira, eta

19:30ean, *Siete psicopatas* eta 22:30ean *Las flores de la guerra* filmak ikusteko aukera izango da.

■ **Amasa-Villabona.** *Un plan perfecto* filma eskainiko dute, 19:30etik aurrera, Gurea Zinemaren.

APIRILAK 1, ASTELEHENA

MUSIKA

■ **Tolosa.** Belton Honea Path High School Chamber Singers abesbatzaren kontzertua izango da, 19:00etan, Kultur etxeko areto nagusian.

ZINEMA

■ **Tolosa.** Leidor zineman 17:00etan *Los Croods* filma ikusteko aukera izango da, eta 19:30ean, *Las flores de la guerra* izango da.

■ **Amasa-Villabona.** *Un plan perfecto* filma eskainiko dute, 19:30etik aurrera, Gurea Zinemaren.

APIRILAK 2, ASTEARTEA

ZINEMA

■ **Tolosa.** Leidor zineman, ikuslearen eguna izango da, eta 20:30ean, *Siete psicopatas* filma ikusteko aukera izango da.

Egin HITZAREN
HARPIDEDUN
otsailaren 1etik
martxoaren 31ra arte,
ETA JASO

EKAIN
sagardoa
6 botilako
kaxa bana



Harpidedun egiten diren
guztien artean

Orduñako Aisia
hotelean,
bi pertsonarentzako
asteburu
baterako
egonaldia
ZOKATUKO
DUGU

Harremanetarako:
902 82 02 01
harpidetza@hitza.info

hitza info

Mauka
GAURKO ESKAINTZA

Zen
gorputz-masajea
harri bero
bolkanikoekin

EGUZKILORE OSASUN SPA
Empoaneri kalea, 4
30082TA 2008 • GP-2008
Tf. 943 67 36 25
eguzkilore@mauka.eu
www.eguzkilore.eu • www.mauka.eu

Precioa
20€

www.mauka.eu

berria
Leitza